

FAMILIAN JOLASEAN 2020/2021

Haurren aisialdia burutzeko proiektu bat dugu, familiak biltzeko egitasmo bat delarik. Orain arte auzo ezberdinetan ibiliak gara lanean, auzo horietan familiak elkartuz eta denon artean jolastuz. Aurten urte ezberdina daukagunez Familian Jolasean ekimenean ere aldaketa batzuk izango ditu COVID-19a dela eta.

Urriari hasi gara proiektua aurrera eramaten eta horretarako izen-emate epea irailean ireki da. Izen-ematea gazteria.errenteria.eus web orriari dagoen formularioaren bitartez egin da.

Izen-emate epea zabalik egongo da plaza guztiak osatu arte.

Saioak presentzialak izango dira, orain arte saio presentzialak eta on-line bidezkoak egin diren arren, hemendik aurrera presentzialak egingo dira.

Horretaz gain, erronka ezberdinak proposatuko dira familia artean burutu daitezkeen, horretarako blog bat sortu dugu bertan sartu eta hilabeteko erronkak edo jolasak bete ahal izateko.

Taldeak 10 partaidekoak izango dira eta saioak astearte eta ostiraletan izango dira 17:30etatik 19:00etara. Asteartean erdiguneko Jose Luis Caso aretoan burutuko dira eta ostiraletan berriz Koldo Mitxelena ikastetxean (Markola eraikinean).

Gaur egun COVID-19 a dela eta segurtasun neurri hauek bermatuko ditugu:

- Etxean temperatura hartu behar izango dute familia guztiak.
- Bertan temperatura hartuko dugu. 37,1° emanez gero ezin izango dute parte hartu, hau da, familiako kide batek 37°tik gora emanez gero, familia osoak ezin izango du parte hartu.
- Jolasak hasi baino lehen, eskuak desinfektatuko ditugu.
- Materiala erabili ondoren, materiala kaxa batean sartuko dugu gero desinfektatu ahal izateko.
- Jolasak, familia bloke bakoitzak burutzeko egingo dira besteekin ahalik eta gutxien elkar daitezkeen.
- Musukoa erabiltzea ezinbestekoa izango da, saio guztietan zehar.

Helburu nagusia, familietan euskaraz bizitzeko bultzada ematea eta horretarako baliabideak eskaintzea da. Horrez gain, heldu eta haurren arteko erlazioak estutzen laguntzen duen proiektua da. Familia askok ez dute elkarrekin jolasten eta proiektu honek oztopo horiek ekiditea du helburu.

6-12 urteko haurrei begirako proiektua izango da, non guraso zein tutoreek haurrekin ekimen desberdinak aurrera aterako dituzten. Beti ere, euskaraz izango dira ekintzak, familietako hizkuntza euskara izatera bultzatuz.